

**Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa**

**Energia  
eta ura**

# **Energia eraginkortasuneko eta eguzki energia termikoko goi mailako teknikaria**



**Nafarroako  
Gobernua**  **Gobierno  
de Navarra**



**UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA**

**Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtsa**

**El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du**

# Energia eraginkortasuneko eta eguzki energia termikoko goi mailako teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

### Eraikinen Energia Eraginkortasuna

- Eraikinetako instalazioen energia eraginkortasuna ebaluatzea.
- Eraikinen energia ziurtapenaren prozesuan laguntzea.
- Eraikuntzan ura eraginkortasunez erabiltzen dela kudeatzea.
- Eguzki instalazioen proiektuak bideragarriak diren erabakitzea.
- Energia eraginkortasunez erabiltzen dela bultzatzea.

### Eguzki Instalazio Termikoen antolamendua eta proiektuak

- Eguzki instalazioen proiektuak bideragarriak diren erabakitzea.
- Eguzki instalazio termikoen proiektuak garatzea.
- Eguzki instalazio termikoen muntaketa antolatu eta kontrolatzea.
- Eguzki instalazio termikoen mantentze-lana antolatu eta kontrolatzea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek hurrengoetan garatzen du bere jarduna: energiaren sektorean; auditoretzetan, ikuskapenetan eta energia ziurtapenetan eskudun diren erakundeetan; eta eraikinetan eguzki energiako instalazioen bideragarritasun, sustapen, ezarpen eta mantentze-lanen azterlanak egiten dituzten enpresetan.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Eraikinetako energia eraginkortasuneko teknikaria.
- Eraikinen energia ziurtapeneko prozesuetako laguntzailea.
- Eguzki instalazioen merkataritzako teknikaria.
- Eguzki instalazio termikoak muntatzeko arduraduna.
- Eguzki instalazio termikoetako mantentze-lanen arduraduna.
- Energiaren kudeatzailea.
- Energia eraginkortasuneko programen bultzatzailea.

### ZIKLOAREN MODULUAK

- Ekipo eta instalazio termikoak.
- Instalazioak muntatzeko prozesuak.
- Instalazioen irudikapen grafikoa.
- Uraren kudeaketa eraginkorra eraikuntzan.
- Eguzki instalazio termikoen konfigurazioa.
- Enpresa eta ekimen berritzailea.
- Ingelesa I / II.
- Eraikinen energia ziurtapena I / II.
- Instalazioetako energia eraginkortasuna.
- Eguzki instalazio termikoen muntaketa eta mantentze-lanak kudeatzea.
- Energia eta uraren erabilera eraginkorraren sustapena.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Energia eraginkortasunari eta eguzki energia termikoari buruzko proiektua.
- Lantokietako prestakuntza.